

bidegileak



José María Jimeno Jurío (1927-2002)


Egilea:

ROLDAN JIMENO ARANGUREN

Nafarroako euskal nortasunaren ikertzailea

*J*osé María Jimeno Jurío 2002ko urriaren 3an hil zen. Une horretan, Foru Gobernu nabarrismoa ofizialki inposatzen ari zen, euskal identitatearen edozein zeinuren aurkako —eta batez ere bere hizkuntzaren eta bere kulturaren edozein adierazpideren aurkako— eraso politikaren bidez. Giro horretan, herri-tarrek bere herriaren euskal sustraiak ikertu, bizi eta maite izan zituen gizon maitagarriari emandako benetako esker onak bildu zuen haren heriotza.

Artaxoan jaio zen 1927ko maiatzaren 13an, eta giro karlistan eman zuen



José María Jimeno Jurío (1927-2002)

haurtzaroa; hain zuzen ere, zenbait urte beranduago, 1936ko gudan, Donostia hartzen parte hartu zuten berrogei erreketek horiek zoritxarrez ospetsu egin zuten giro karlista hartan. Bere garaiaren eta lekuaren seme izan zen, eta giro erlijioso eta patriotiko sakonak markatu zuen bere haurtzaro eta gaztaroa. Zacarías Jimeno Cilvetiren eta Cornelia Jurío Oficialdeguiaren seme zen, lau anai-arreben artean zaharrena; anai-arrebak zituen Jesús, María Soledad eta Tomás. Jesús

1984ko urtarrilean hil zen. Guda zibila hasi berria zelarik, Jesusen Bihotzaren misiolariak Artaxoan sortu berri zuten eskolan hasi zen. Kongregazio horrek bazuen beste eskola bat Lluch-en, Mallorcan, eta, hamabi urte zituenean, bertara joan zen ikasketekin jarraitzeko.

Gerraostean magisteritza ikasten hasi zen, eta 1946an lortu zuen Lehen Hezkuntzako



Tomás, Jesús, María Soledad eta José María Jimeno Jurío anai-arrebak (1942. urtea inguru)

Maisu titulua, 19 urte zituelarik. Noaingo (Elortzibar) (1947) eta Lergako (Oibar) (1947-1949) eskoletan aritu zen lanean, 1947 urtean eta 1947 eta 1949 urte bitartean, hurrenez hurren. Azken horretan, parrokiako organista ere izan zen eta eskolako eraikinean egin zituen horma-irudietan agerian utzi zuen artearekiko joera. Bere bizitasuna eta umore sanoa zirela eta, Artaxoako lagunek *Jaimito* ezizena jarri zioten, eta bere jaioterrian horrela deitu izan zuten hil arte.

Lehen Hezkuntzako irakasle lana zerbitzu militarra egiten hasi zenean utzi behar izan zuen, baina zerbitzu hori egitearekin batera Lehen Hezkuntzako Magisteritza Nazionalean sartzeko oposizioak prestatu zituen maisu gazteak. Gerraosteko giro nazional-katolizistak eragin erabakigarria izan zuen biografia honen protagonistaren bizitzan. Lizentzia militarra lortu eta berehala, Iruñeko seminarioan sartu zen (1950), eta bertan osatu zuen prestakuntza humanistikoa. 1956an apaiz ordenatu ondoren, parrokia hauetan egin zuen lan pastoralak: Zangoza, Altsasu —bertan erlijio irakasle eta Lan Institutuan ikasketa buru izan zen—, Uxue, Bearin eta Asiain eta Arteta (azken bi horietan batera). Historiarekiko zuen grina eta ikertzeko bokazioa agerian utzi zituen argitara eman zituen lehenengo testuetan. Jose Miguel Barandiaranen eskutik —harreman estua izan zuen berarekin—, etnografia deskubritu zuen. Dohain berezia zuen diziplina hori garatzeko,

eta horrek eraman zuen aurrerantzean Nafarroa osoan, landa-azterketa sakona eginez.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan trantsizio pertsonal eta intelektual handia izan zen José María Jimeno Juríoren bizitzan. 1970ean sekularizatu eta hurrengo urtearen amaieran Elena Aranguren Lumbreras ezagutu zuen; 1972ko abuztuan harekin ezkondu eta seme bakarra izan zuten, 1973ko ekainean. 1970etik aurrera Iruñeko Aurrezki Kutxaren menpe zegoen San Pedro auzoko liburutegiko zuzendari lanetan aritu zen; entitate hori, Iruñeko kutxa, lagun min zuen Miguel Javier Urmenetak zuzentzen zuen. Lan horretan, Euskal Herriaren Historiari buruzko fondo

berezia sortu zuen, gaur egun *José María Jimeno Jurío* izeneko gela berriari gordetzen dena. Gure egilearen produkzio zientifikoa bereziki emankorra izan zen historiaren, etnografiaren eta folkloreaken alorretan hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran eta laurogeiko hamarkadaren hasieran, orduan eman baitzituen argitara bere lan klasikoetako batzuk.

1983an San Pedroko liburutegia utzi eta ikerketa hartu zuen eginkizun nagusitzat. Urte horretan Eusko Ikaskuntzako Nafarroako presidenteorde kargua hartu zuen, nahiz eta aldeztatik ere kargu hori bete izan zuen, Manuel Lekuonak proposatuta. Garai hartan



Noainen irakasle, bere ikasleekin (1947)



Elena Aranguren emaztearekin, Nafarroako Bardeetara egindako txango batean (1998)

jarri zuen martxan Euskaltzaindiak bultzaturiko *Onomasticon Vasconiae* proiektua, Iruñerriko toponimia bilduz. Lan hori bikain amaitzeko, honako proiektu handia zuzendu zuen: Nafarroako toponimia gutia biltzea; laurogeita hamarreko hamarkadan linguista eta historialari talde handi batek egin eta Nafarroako Gobernuak babestutako lana izan zen.

Laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik aurrera, euskararen historia ikertzeko lanetan aritu zen; aldizkari espezializatuetan artikulu ugari eta zenbait monografia egin zituen, dagoeneko gure hizkuntzaren ikasketa historikoa egiteko klasikoak bilakatu direnak. Bere bizitzako azkeneko urtea bihotz-hodietako endekapenezko gaixotasun batek jota

igaro zuen, bere senide eta lagun minenak ondoan zituela, une gogor horietan babestuz eta zientzia eta kultur ekitaldietara lagunduz, Iruñean eta Euskal Herriko hainbat lekutan, horretarako ere indarrak galdu zituen arte.



Chillidaren obrari argazkiak egiten Chillida-Lekura egindako txango batean (2002)

Artaxoako euskara eta euskal kulturaren aurkikuntza

José María Jimeno Juríok euskarari zion mai-tasuna gerraostearen hasieran piztu zen. 1932 eta 1947 urte bitartean, izeba propio erlijioso bat, sor Fortunata Jurío, Zañartuko Karitateko Alaben (Oñati, Gipuzkoa) komentu eta ikastetxean nagusia izan zen. Bertan barneko egon zen bi urtez Soledad arreba, eta behin baino gehiagotan joan zen José María adoleszentea bisitan; han ikasi zituen lehenengo hitzak euskaraz.

Euskararekiko eta euskal kulturarekiko zale-tasuna Jose Miguel Barandiaranen eskutik jaso zuen. Ataungo jakintsuak Aitzbitarte IV kobazuloan egindako indusketak zuzendu zituen 1961ean, Erreterian (Gipuzkoa); lan horietan Jesus Altunak, Juan Maria Apellanizek eta Ignacio Barandiaranek ere hartu zuten par-



1960. hamarkadan Artaxoaren Historiako materiala biltzen hasi zen. Bibliografia eta artxibategietatik jasotako informazioa mekanografiatu eta karpitetan sailkatzen zuen

te, besteren artean. Bertan, Barandiaranen jakituriarekin liluraturik geratu zen eta berarengandik jaso zuen inkesta etnografikoa egiteko metodologia.

Baina euskararekiko benetako sentimendu identitarioa bere jaioterriko toponimiaren eta etnografiaren ikerketatik sortu zitzaion. 1968an Artaxoako Erdi Aroko dokumentazio bilduma eman zuen argitara, eta bertan herriko hainbat toponimo erregistratu zituen, gehienak ere euskarazkoak. Ikerketa horrek eta ondorengo garaietan egindako beste datu batzuk oinarri hartuta, 1969an «El Euskera en la Toponimia de Artajona» artikulua argitaratu zuen.

Barandiaranekin izandako harremanaren ondorioz, eta Etniker Nafarroa taldeen sorreran partaide izanik (1968), bere maisua izan zenaren inkesta Artaxoan aplikatzen hasi zen, ikerketan izandako jardunbidean etengabe



Artaxoako euskal toponimiaren inguruko lana (1969)

errepikatu zena markatuz: herri xehearekiko interes berezia, alegia. Bere lana ez zuen jaioterrian mugatu. 1973 eta 1975 urteak zenbait inkesta etnografiko egiten eman zituen, Nafarroako zenbait herritan, eta horren ondorioz utzi zituen 200 kasete inguru eta fitxa eta dokumentu anitz idazmakinaturik. Lan horien emaitzaren parte bat *Hoja del Sábado* izeneko berripaperean, Iruñeko Aurrezki Kutxak argitaratutakoan, eman zuen. Bertan, istorio txiki anitz bildu zituen, eta aldaketa sozio-kulturalen ondorioz desagertzeko zorian ziren ohitura bitxi eta errito anitzen deskripzioa eman zuen, arretaz egindako landa-azterketan jasotako eta maitasunez eta zorroztasun metodologikoaz landutako lanaren ondorio. Kolaborazio horiek *Al airico de la tierra. Tipos de la tierra* Pamielak 1997an egindako liburuan bildu zituzten. Gainera, aipatutako fitxa horiek Nafarroako etnografiari eta folkloeari buruzko

hainbat lan osatzeko datu amaiezinen harrobi izan ziren; lan horien artean Nafarroako Gobernua argitaraturiko *Panorama* bildumako bi ale nabarmenduko ditugu, neguko eta udaberriko jai egutegiari dagozkienak (1988 y 1990).

Baina Jimeno Juríoren soinu-material eta mekanografiatua ez zen, ez, agortu berak emandako argitalpenekin. Idatzitako fitxek eta dokumentuek argitara eman ez diren datu anitz gordetzen dituzte, eta grabatutako kaseteek fitxetan transkribatu gabeko informazio zabalak dute. Material horrek guztiak datu harrobi amaiezina osatzen du Nafarroako etnografia eta folklorea ikertzeko interesa duten ikertzaileentzat; une honetan, Eusko Ikaskuntza hori guztia digitalizatzen ari da. Horren ondorio izango da idatzizko eta soinu datu basea, ikertzaileen zerbitzura jarriko dena Eusko Ikaskuntzako web orrian.



1970. hamarkadaren lehen erdialdean egindako inkesta etnografikoak milaka fitxatan transkribatu zituen. Egun material hori Eusko Ikaskuntzan digitalizatzen ari da

Trantsizio garaiko euskaltzaletasuna

Trantsizio politikoa José María Jimeno Juríok trantsizio pertsonal garrantzitsua (sekularizazioa, ezkontza, aita izatea) igaro ondoren heldu zen. Alderdi intelektuari dagokionez, hirurogeita hamarreko hamarkadaren lehenengo urteetan gure egilea zorroztasun zientifikotik abiatuz gai polemikoak aztertu zituen historialaria izan zen; ondoren, hedapen handiko obretan ematen zituen publiko zabalarentzat argitara; obra horietako batzuk *Historia de Pamplona* —non San Fermin ez zela existitu argi uzten baitzuen— eta *Orreagako gudua* —non Karlomagnoaren armadaren atzealdearen kontrako gudua non izan zen zehazten lagundu baitzuen— izan ziren.

Lan intelektual zabalari esker ospea hartuta eta San Pedroko liburutegiko zuzendari lane-

tan ari zela, unibertsitateko ikasgeletara itzuli nahi izan zuen, Nafarroako Unibertsitatean Historia karrera ikasteko. Bere ideologia politikoa eta Opus Deiren ortodoxia elkarren kontrakoak ziren eta, horrela, 1975eko abuztuan unibertsitatean sartzeko betoa jarri zioten, honakoa argudiatuz: historialari profila ez zuela eta, beraz, ezin izango zuela karrerako ikasle ona izan. Eskandalu hori zelata-eta orduan foru kontseilaria zen Javier Yaben Bengoecheak kexa egin zuen Diputazioan, eta horrek Jimeno Jurío *autore madarikatua* bilakatu zuen Nafarroako eskuin akademikoa-erentzat.

Franco hil eta diktadura amaitu ondoren, Jimeno Jurío berehala nabarmendu zen proiektu intelektual euskaltzale eta ezker-tzaleetan militatzeagatik. Horren adibide dira 1976an argitara eman zituen bi artikulu txiki baina oso esanguratsuak. Lehendabizikoa,

Iruñeko San Pedroko liburutegian zuzendari zenean, Euskal Herriko historiaren inguruko atal bat eratu zuen. Argazkia 1973. urtearen ingurukoa da. 2002tik, fondo hori San Pedroko liburutegi berrian Jimeno Juríoren izena daraman gela batean dago





Iruñeko San Pedroko liburutegian elkarrizketa bati erantzuten. Argazkia 1974. urtearen ingurukoa da



Navarra jamás dijo No al Estatuto Vasco liburuaren azala (1977)

«Folklore de primavera en la Ribera vasca» izeneko, Tuterako Nafarroako Aurrezki Kutzako Kultur Aretoan emandako hitzaldiaren ondorio izan zen; bigarrena, «¿Navarra es vasca?» izenburua zuena, *La Verdad* Iruñeko eta Tuterako elizbarrutiaren Orri parrokiak argitaratu zuen.

1977 urtea bizia izan zen pertsonal eta intelektualki. Manuel Irujo Olloren laguna zen, erbesteratzearen azkeneko etapan bisitan joan zitzaion, eta azkenean, Errepublikaren ministro ohia Nafarroara itzuli zenean, 1977an, Jimeno Juríok laguntza eman zion. Urte hartan *Punto y Hora de Euskalerría* aldizkarian ohiko kolaborazioak egiten hasi zen; lan horietan nabarmendu ziren Orreagako guduan gertatutako azterketa berria

eta, oso bereziki, 1917 eta 1919 urte artean izandako aldarrikapen autonomikoak eta II. Errepublikaren estatutu-prozesua. Aldizkari horrek gainera *Navarra jamás dijo No al Estatuto Vasco* izeneko monografia argitaratu zuen, gerra zibilaren aurrean Nafarroan izan zen identitate sentimendua ulertzeko funtsezko obra. Gerra ere izan zuen idazteko gai; guda zibilean fusilatutakoei buruzko zenbait artikulua idatzi zituen, eta gai hori apurka-apurka elikatu zuen artxiboan egindako lanari eta landa-azterketa handiari esker. Baina Triple A deitutakoak *Punto y Hora* Iruñean zuen egoitzan jarritako bonbak lan hori bertan behera utzi zuen. Handik denbora

gutxira, organizazio horretako anonimo batak hilko zutela mehatxu egin zion Jimeno Juríori; horregatik, ikerketa ildo hori alde batera uztea erabaki zuen. Argitaratu gabe utzitako materialak *Navarra 1936. De la esperanza al terror* (Altafaylla, 1986) izeneko lana osatzeko baliagarri izan ziren; Jimeno Jurío izan zen obra horretan aholkulari.

Trantsizioko urteak emankorrak izan ziren beste ikerketa alor sinbolikoki garrantzitsuan: folklorean. Desagertutako festa eta dantza herrikoen inguruan egin zituen ikerketak —Nafarroako Erriberakoak batez ere— baliagarri izan ziren galdutako horiek berrindartzeko, frankismo garaian isildutako identitateak berrosatzea beharrezkoa zen garai hartan.

Nafarroako toponimiaren ikertzaile

Aurretik esan bezalaxe, Jimeno Juríori Artxoako euskal toponimia aztertuz sortu zitzaion euskararekiko grina. Toponomastikarekiko interesa ez zuen 1981 urtea arte berriro hartu, eta orduan, artxiboetan egindako ikerketaren eta landa-azterketaren ondorioz Asiain, Lizasoain eta Oltzako toponimia argitaratu zuen; aski ongi ezagutzen zituen eremu horiek, bertan eman baitzituen apaizgoaren azkeneko urteak.


Handik gutxira, Euskaltzaindiak *Onomasticon Vasconiae* izeneko proiektu handia jarri zuen martxan; bertan, lehenengo lanak Jimeno Juríok Iruñerriko toponimiei buruz egindako monografiak izan ziren. Prozedura aitzindaria erabili zuen: dokumentu iturriak hustu zituen, Erdi Arotik gaur egun arte, leku bako-



Euskaltzaindiaren *Onomasticon Vasconiae* sailari hasiera eman zion *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur* liburuaren azala (1986)



Euskaltzaindiaren *Onomastika* saileko bilera Durangoko udaletxean, Patxi Salaberri, Andres Iñigo eta Patxi Iñigorekin (1987-12-7)



Jimeno Juriok Tiebasen zeukan etxean herri honetako toponimia berak margoturiko mapa batean ipini zuen

tzeko biztanleei egindako elkarrizketa pertsonalekin osatuz. Emaitzak sei liburukitan argitaratu zituzten (Honako zendeak: Zizur 1986; Galar, 1987; Oltza, 1989; Itza, 1990; Antsoain, 1992; Iruñea, 1994; azken hori Patxi Salaberri Zaratiegirekin batera egin zuen).

Bilduma horretatik kanpo, liburuki bana eman zituen Tafallako eta Burlatako toponimiarekin. Lehenengoa, Eusko Ikaskuntzak ematen duen *Angel de Apraiz Bekaren* laguntzaz egin zuen (1989), eta bereziki interesgarria da zeren Nafarroan mintzatu izan diren hizkuntza eta dialektoen muga geografiko, diakroniko eta soziologikoak ezartzen laguntzen baitu. Burlatako liburuan —Udalak eskatuta egin zuen (1991)— toponimia handia eta txikia, odonimia eta oikonimia aztertu zituen. Aldi berean, hala Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian nola *Fontes Linguae Vasconum*-en Nafarroako beste ikerketa toponomastiko batzuk argitara eman izan zituen, bai teoria metodologiko eta kontzeptualari zegozkienak bai ikerketa historikoei zegozkienak ere.

Gure egileak egindako material historikoen ekarpena oinarri izan zen *Nafarroako Herri Izendegia. Nomenclator euskérico de población de Navarra* osatzeko (1990); orain, Nafarroako herrien izenak normalizatzeko gida bikaina da, Nafarroako Gobernuak gaur egun oinarri duena.

Alor horretan egindako lanaren amaiera ederra *Nafarroa, toponimia eta mapagintza* izeneko makro-proiektua izan zen, proiektu aitzindaria

nazioartean ere. Horren aurretik, izenburu hori bera zuen argitalpen bat eman zuten, lana egiteko jarraitu beharreko metodologia azalduz. Kartografia, toponimia ofizialaren euskarria alegia, *Trabajos Catastrales S*Aren lana izan zen. Jimeno Juríoren zuzendaritzapean, diziplina anitzeko filologo eta historialari talde batek —hizkuntzaren ikuspuntutik Mikel Belaskok koordinatutakoak— Nafarroako toponimia txiki osoa jaso zuen eta 60 liburukitan argitara eman. Ikerketa tokian tokiko monografiatan eman dute, 1:5.000 mapekin lagundurik; horietan, herri bakoitzeko toponimia txikia biltzen da, toponimoaren bilakaera historikoa (lekukotza dokumentalak) eta gaur egungo ahoskera bereziki azpimarratuz. Proiektuaren helburuetako bat euskarazko toponimoen normalizazioa izan zen, prozesu desitxuratzaille gogorra jasan izan baitute, batez ere erdialdeko Nafarroan. Obra hori lan tresna handia da ikerketa eremua Nafarroako lurraldea duten historialari, hizkuntzalari, antropologo, geografo, biologo, edafologo eta beste diziplina anitzetako ikertzaileentzat.

Azkeneko liburua, Patxi Salaberri Zaratiegirekin batera egindakoa, Artaxoako toponimiara eta euskarara egin zuen lehenengo hurbilpen horren berrikusketa izan zen, hain zuzen ere (1999). Liburuko eskaintza adierazgarriak honela esaten zuen: «Artaxoari, bere nekazal aberastasunaz eta bere altxor arkeologiko eta artistikoaz gain, kultur unibertsalari bere euskara bereziaren erlikia eman dion horri».

Euskararen historian murgilduz

Beraz, ikerketa toponomastikoarekin Jimeno Juriok euskara galdua zuen Nafarroaren euskalduntasuna jarri zuen agerian, eta hizkuntzaren atzerakadaren ikerketa historikoarekin prozesu horren ezagutza osatu zuen. Zegoen historiografiatik abiatuz, eta Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboko eta Nafarroako Artxibo orokorreko zenbait prozesu aztertuz, Nafarroako erdialdeko herri eta eskualdeetako bertakoen pixkanakako hizkuntz atzerakadari buruzko artikulu anitz argitaratu zituen. Herri eta eskualde horietako batzuk izan ziren Urraulgoitia, Agoitz, Galipentzu, Oibar, Zaraitzu, Almiradioa, Eguesibar, Ezkirotz, Zirauki eta Allin ibarra. Iruñeko hirian euskarak izan zuen atzerakadari buruz egin zituen ikerketak bereziki garrantzitsuak izan

ziren; horrela, gure egilea *Historia de Pamplona* izeneko lana berrargitaratzera animatu zen, edukiak gaurkotuz eta hirian hizkuntzek izan duten bilakaera historikoari buruzko atalak gehituz (1995).




1982ko maiatzaren 22an, Jimeno Juriok *Korrika* abiarazi zuen Iruñeko Foruen plazan sorbaldan lehenengo zenbakia zeramala. Alboan bere semeak jarraitzen zion




1995. urtetik Euskal Fundazioarentzat lan egin zuen Nafarroako euskararen historia ikertzen. Argazkian Joseba Intxausti, Helene Handialian, Elena Aranguren eta Juan Zelaiarekin



Jimeno Jurió bere etxean, Mikel Belaskorekin, *Nafarroa Toponimia eta Mapagintza* bildumaren materiala orrazten (1996. urtea inguru)



Historia de Pamplona y de sus lenguas
liburuaren azala (1995)



Navarra. Historia del Euskera
liburuaren azala (1998)



Navarra, Gipuzkoa y el Euskera.
Siglo XVIII liburuaren azala (1998)

Euskal literaturaren ezagutzari ere egin izan zion ekarpena, XVI. mendeko bi idazleri buruz egindako ikerketekin: Juan de Beriain eta Juan de Amendux. Lehenengoa, apaizen eta euskarazko dotrinaren eginkizuna ezagutzeko ezinbestekoa; eta bigarrena ere ezinbestekoa euskal hizkuntzak Nafarroako Erriberan izandako presentzia ikusteko.

Lan multzo horretan oinarriturik, José María Jimeno Jurío Nafarroako Historian euskararen bilakaera azalduko zuen sintesi lana eginen animatu zen (Txalaparta, 1997); lan hori klasiko bilakatu zen argitara eman zutenetik bertatik. Hurrengo urteetan, ikerketa ildo horretan jarraitu zuen, XVIII. mendean Borboidarrek bultzaturiko politikak gure hizkuntzari ekarri zion atzerakadan bereziki arreta

jarritz; horren ondorioz, *Navarra, Gipuzkoa y el Euskera. Siglo XVIII* liburua argitaratu zuen (Pamiela, 1999). 1995 eta 2001 urte bitartean garatutako ikerketa lerro horrek *Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren* mezenasgoa izan zuen.



Jimeno Jurioren heriotzaren ondoko egunean Oroz marrazkilaria *Diario de Navarra* bineta hau argitaratu zuen (2002-10-4)

Euskara eta euskal kulturaren aldeko konpromisoa

José María Jimeno Juríoek laurogeiko hamarkadaren hasieran ikasi zuen euskara Arturo Kanpion euskaltegiko ikasgeletan, Iñaki Zabaleta Urkiola irakaslearekin. Eta berriro ere ekin zion ikasteari bere bizitzako azkeneko epean, Jorge Cortés Izal eta Pablo Antoñana Chascorekin batera Asisko Urmenetak ematen zizkien klase partikularretan. Talde bitxi

horrek eguberrietako ETBko programa batean kantatzea ere onartu zuen, Donostiako Kursalen grabaturikoan (2000).

1980 eta 1981 urte bitartean, Eusko Ikaskuntzako Nafarroako lehenengo lehendakariordea izan zen, eta horrela hasi ziren elkarte horren jarduerak Nafarroan. Parentesi labur bat egin ondoren, berriz ere hartu zuen kargua 1983an, eta hurrengo urtean Nafarroako Foru Diputazioa Eusko Ikaskuntzan modu efektiboan berriz sartzeko lortu zuen.



Eusko Ikaskuntzaren Zuzendaritza batzordearen bilera Ataunen. Zutik: Armando Llanos, Ander Manterola, José María Jimeno Jurío, Juan Garmendia, José Ángel Ormazabal. Eserita: Gurutzi Arregi, Joxe Migel de Barandiaran, Juan José Etxeberria eta Edorta Kortadi (1983-12-29)

Euskararekiko konpromisoak euskal hizkuntzaren eta kulturaren aldeko jarduera anitzetan parte hartzera eraman zuen gure egilea. 1982ko maiatzaren 22an, Iruñetik abiarazi zen *Korrika 2*ko lehenengo zenbakia eraman zuen. *Korrikaren* beste edizio batzuetan ere egon zen Artaxoako korrikalaria; eta hizlari lana ere egin izan zuen 1994ko *AEK Egunean*. *Nafarroa Oinezari* loturiko beste jarduera batzuk ere izan zuten Artaxoako historialariaren laguntza aktiboa, hala hitzaldietan parte hartuz, nola argitaratzeko testuak emanez edo ibilbideen inaugurazioetan parte hartuz.

1988an Euskalerria Irratia martxan jartzen lagundu zuen. Nafarroako Gobernuak emisora banaketetan kanpo utzi duen bakoitzean, Ji-

meno Juríoren hotsa irrati euskaldunaren alde atera zen beti (1990, 1998). ETB jasotzea erregulatzeko eskariak ere izan zuen bere laguntza (1993).

1991n, Iruñerriko alkateek euskararen alde bultzaturiko kanpainari amaiera ematen zion bizikleta martxa antolatu zen. Gelditzen ez zen euripean, adin guztietako txirrindulariak iritsi ziren Gazteluko Plazara; bertan, gure historialariak euskararen garapena bultzatzearen aldeko manifestua irakurri zuen.

1993an, ez zuen inongo zalantzarik izan Nafarroako Gobernuak haurrak euskaraz matrikulatzearen aldeko kanpainan parte hartzeko; kanpaina horren foiletoan honakoa



Eusko Ikaskuntzaren egoitzaren inaugurazioa. Donostiako Miramar jauregian Estornés-Zubizarreta senar-emaztearekin (1994-6-30)

baieztatu zuen: «haur eta gazteei hizkuntza ikas dezaten gomendatzen diet. Gure arbasoen oinordetza da, gure jakituria kultural autoktonoa handitzen du eta gure historia, hizkuntza eta kultura hobeki ezagutzeko aukera ematen du». Nafarroako Gobernuak antolaturiko «Euskara, iraganaren geroa» izeneko erakusketan ere parte hartu zuen, «Es nuestra lengua» izena zuen testuarekin. 1995ean Iruñeko Biurdana Bigarren Hezkuntzako institutuko D ereduaren alde agertu zen. Euskara bultzatzeko Nafarroako Gobernuaren politikak *Nafarroako Euskararen Kontseilua* izenekoaren sorrera izan zuen adierazlerik nagusia; PSN, EA eta IUren arteko hiruko gobernuak eratu zuen 1996an eta Jimeno Jurío izan zen hamabost batzordekideetako bat.

Hiruko gobernuak erori eta UPN sartu zenean, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikan erabateko aldaketa izan zen. Ordu-

tik aurrera, politika horren aurka gero eta mobilizazio gehiago izan zen, eta Jimeno Jurío ekimen askotan hartu zuen parte. Horrela, 1998an, Kontseiluak antolaturiko *Bai euskarari* ekimenari laguntza eman zion.

Azkeneko urteetan saminez bizi izan zuen Nafarroako Gobernuaren euskararen aurkako erasoaldia. Horren ondorio izan ziren *Diario de Noticias* egunkarian 2001eko urtarilaren amaiera eta otsaila hasiera bitartean egindako hiru kolaborazioak: «Euskera, ¿palabra inventada modernamente?»; «Lo vasco en José María Iribarren»; «Batua, ¿vascuence de alambique?». Hilabete horretan bertan Nafarroako Ikastolen Elkarteak, Sortzen gurasoen elkarteak eta Euskara Kultur Elkar-goak euskaraz matrikulatzeko egindako kanpainari laguntza eman zion; lagundu zuen, baita ere, Nafarroako eremu euskalduneko alkateek *Euskara guztion eskubidea* lemapean egindako martxa.



Iruñeko *Los del Bronce* peñakoek Ohorezko Bazkide izendatu zuten 1997. urtean. Bertan ekitaldi anitzetan parte hartu zuen. Argazkian Pablo Antoñana eta Elvira Sáinz adiskideak alboan ditu (2000)



1995eko azaroaren 25ean hainbat erakundek omenaldi herritarra egin zioten. *Bide orotako laguna* izeneko ekitaldi horretan hirurehun pertsonaz goiti bildu ziren. Argazkian bere emaztearekin

Euskalgintzaren esker ona

Euskal Dantzarien Biltzarra aitzindari izan zen Jimenok dantzaren alorrean egindako lana aitortzen, eta Ohorezko Presidente izendatu zuen. Euskaltzaindiak ekarpen eta lan topomastikoak baloratu zituen batez ere, eta *Ohorezko Euskaltzain* izendatu zuen (1991ko apirilaren 26an). Eta herri xeheak, Jimenoren ikerketa lan itzela eta Nafarroa osoan egindako kultur ekitaldiak eta hitzaldiak aitortuz, omenaldi eta sari popular anitz eskaini dizkio: *Olentzero saria*, *Tafallan*, *euskal kultura eta hizkuntza babesteagatik* eta *egindako lan eta ekarpenagatik* (1991); *Tafallako Orden del Cuto*

Divino izeneko Ohorezko Kidea (1992), herriaren izena hedatzen egindako laguntzagatik. Altsasuk, festa berreskuratzen egindako ekarpenagatik, herriko *Intxaurrondo zahar*aren zati bat eman zion sinbolikoki, 1993ko inauterietan.

Aitorpen horien guztien elkartzea izan zen, ezbairik gabe, 1995ean zenbait elkartek egin zioten omenaldia; elkarte horietako batzuk izan ziren *AEK*, *IKA*, *Gerónimo de Uztariz*, *IPES*, *Iparla*, *Axular*, *CE Merindad de Tudela*, *CE Tierra Estella*, *Beterri*, *Altaffaylla*, *Muga*, *Iruñeko Gaite-roak*, *Ortzadar*, *Duguna*, *Eusko Ikaskuntza*, *Iruñeko Udala*, *Tafallako Udala*, *Artaxoako Udala*,

Nafarroako Gobernuoko Kultura Departamentua, Euskalerrria Irratia. Ekitaldiak («Bide orotako laguna»), bide orotan egindako lan handia aitortzeko egindakoak, hirurehun pertsona baino gehiago bildu zituen Iruñeko Jus la Rotxa gizarte etxean. Hurrengo urtean, Ameskoko Arantzadua kolektiboak Luciano Lapuente saria eman zion (1996); eta Iruñeko Los del Bronce peñak Ohorezko Bazkide du 1997 urtetik.

Omenaldi herritar horiekin amaitzeko, bi sari garrantzitsu jaso zituen 1998an: *Bizi oso-ko ibilbideari saria*, Sabino Arana Fundazioak emandakoa, *euskal historiografiari egindako ekarpen handiagatik eta Nafarroan ekimen kul-*

tural emankorrek bultzatzen egindako lanagatik. Eta Eusko Ikaskuntzak ematen duen Manuel Lekuona saria, Batzorde Iraunkorreko kide guztiek aho batez onartuta emandakoa eta gure egileari buruzko lehendabiziko biografia bultzatu zuena.

Ordutik aurrera, honako kolektibo eta instituzioen omenaldi eta sariak jaso zituen: Tuterako Merinaldeko Ikasketa Zentroa, Cortesko Makil-dantza, Durangoko liburu eta disko azoka (1999); *El Cerco* Artaxoako Lagunen Kultur Elkartea, Nafarroako Almadiazainen Kultur Elkartea (2000); Ikastolen Elkartea Ibilaldia 01-en, Irujo Etxea Fundazioa (Don Manuel de Irujo Lehenengo Saria), Nafarroa-



1998ko maiatzaren 16an Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria jaso zuen

ko Liburutegien Sarea-Iruñeko Udala (José María Jimeno Jurío aretoa San Pedroko liburutegi berrian) (2001); Iruñeko Liburu Azoka (gure egileari eskainitakoa), Artaxoako Udala (omenaldia eta herriko kale bat eskaintzea) (2002).

Urriaren 4an, ostiralarekin, *Diario de Noticias* egunkariak eta Pamiela argitaletxeak antola-

turiko omenaldia prest zegoen, *Al airico de la tierra* liburuaren berrargitalpenaren kariaz. Baina aurreko egunean Jimeno Jurío hil zen, eta horrek astebete atzeratu zuen ekitaldia, gaur egun arte egin izan diren omenaldi andanari hasiera emanez: Nafarroa Oinez Tuteran, Mendillorriko Ezpondapea elkarteak, Nafar Ateneoa, Irujo Etxea Fundazioa, Etniker Taldeak, Euskal Irakasleen Elkarteak (EIRE),



Jimeno Jurioren heriotzaren ondoko egunean J.J. Aós marrazkilariak *Diario de Noticias*en argitaratutako bineta (2002-10-4)



Jimeno Jurioren heriotzaren ondoko egunean Tasio marrazkilariak *Garan* argitaratutako bineta (2002-10-4)

Artaxoako Olentzero komisioa, eta Garesko, Lizarrako eta Uxueko Udalak. Tafallako zenbait elkartek eta Erronkariko *Uskararen Egunaren* antolatzaileek ere omenaldi bana egin zioten. Udako Euskal Unibertsitateak ere 2004ko martxoaren 5 eta 6an Iruñean egin zituzten *Historiagile euskaldunen III. Topaketak* berari eskaini zizkion.

Eta herri omenaldien aurrean, UPNko gobernatzailen isiltasuna dugu. Urriaren 24an Batzarreko zinegotzi Tere Gonzalezek San Saturnino egunean, azaroaren 29an, historiariari omenaldia egitea eskatu zuen, baita hiriko kale edo plazaren bat eskaintzea ere. Eskari horrekin bat egin zuen Alderdi Sozialistak, azaroaren 5ean, eta UPNri egindako kritiken aurrean, Yolanda Barcina alkateak hiriko kale berrietako bat Jimenoren izenarekin bataiatzeko tramiteak hasi zirela iragarri zuen azaroaren 7an. Gaur egun, ekimen hori eten du udal gobernu taldeak. Bestalde, zenbait kultur elkartek José María Jimeno Jurío proposatu zuen 2004ko Vianako Printzea saria jasotzeko, baina Kultur Kontseilariak de *facto* zapuztu zuen ekimena, aurrerantzean hil ostean saria jasotzea debekatu baitzuen.

Baina omenaldi guztien artean eragin eta iraunkortasun handiena izanen duena Euskara Kultur Elkargoak eta Pamielak bultzaturiko proiektua da: José María Jimeno Juríoren obra osorik argitara ematea. 55 liburuki argitara emateak argi eta garbi erakutsiko du euskaltzale horren handitasun intelektuala. Herriak maite zuten, Nafarroan nagusi den eskuinak bazter utzi zuen eta bide garrantzitsua zabaldu zuen euskal toponimiari eta euskararen historiari egindako ekarpenekin *lingua navarrorum* galdua zegoen eta gaur egun berreskuratzen ari den leku horietan berriz ere hizkuntza ezagut dadin.



Jimeno Juríoren heriotzaren ondoko egunean Martintxo marrazkilariak *Euskaldunen Egunkarian* argitaratutako bineta (2002-10-4)

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagaririk, eskerrak eman nahi dizkie:

- *Elena Aranguren Lumbrerasi*
- *Ainhoa Nieva Zardoyari*
- *J.L. Larrioni eta E. Pimoulierri (azaleko eta lehenengo orriko argazkia)*
- *Luis Azanzari (17. orriko argazkia)*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2004ko azaroa

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde (g.b.)

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2191-7 (Lan osoarena)
84-457-2194-1

L.G.: BI-2.961-04